



## FUTBOLA

**herria asetzen ez duen elikagaia**

Brasilgo Munduko Kopatik joko-eremu lokaletara

**ELKARRIZKETAK**

**Ekain Rojo**


*Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian* liburuarren egilea

**Andy Robinson**

*Futbolaren geopolitika (La Vanguardia)* erreportaje-sailaren egilea

**Raúl Zibechi**

*Brasil potencia* liburuarren egilea



# Garestiena ekonomikoki, garestiena sozialki

**G**ose den umeak baloia plater. Munduko Futbol Koparen aurrean brasildar Gugarik sentitzen duena irudikatzen du mutikoaren negarrak. Kexu dira oinarritzko premiak asetzerik ez eta kirol ekitaldi ponpoxo eta garestia zerbitzatu dietelako ahogozagarri.

Futbola –edo negozioa ardatz duen futbol eredua– gustuko izan ala ez, uztailaren 17ra bitartean Munduko Kopari begira jarriko gara asko, edo jarriko gaituzte, han bildu diren izarren dirdirak itsututa, nahiz eta identitate ikur indartsuena litzatekeen euskal selekzioak lehiatzerik ez duen.

Estadioetatik haragoko errealtateari begiratu diogu LARRUN honetan, gizonezkoen goi mailako futbola ardatz, hiru lagunen hitzak bidelagun hartuta: Raúl Zibechi idazle uruguaiarrak Brasilgo egoera sozio-politikoaz duen iritzia jaso dugu, Ekain Rojo ikerlariak *Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian* liburuari buruzko azalpenak eman dizkigu, eta Andy Robinson kazetari ingelesak futbolaren geopolitikaz hitz egin digu, Erresuma Batuko errealtateaz bereziki.



Brasilgo presidente Dilma Rousseff-ek bazekien, bere aurreko Luiz Inácio Lula da Silvaren egitasmoa –haren gobernuak egin zuen Munduko Koparen aldeko apustua– oinordetzan hartu zue-nean, hainbat zailtasun gainditu beharko zituela

ekainaren 12a, txapelketaren irekiera eguna, heldu bitartean. Nekez imajinatuko zuen, baina, sektore desberdinetatik heldu diren protestek tamainako buruhaustek emango zizkietenik. Manifestazio jendetsuak, grebak, antolaketa-gastuek sortutako

■ **Egilea: Jon Torner Zabala / Azaleko graffitia: Paulo Ito**

---

**Azala:** Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.420. zenbakiarekin banatua, 2014ko ekainaren 22an)



ROBERTO STUCKERT FILHO / PR

**Brasiliako Nazionalako palkoan ageri da Dilma Rousseff. Urriko presidentetzarako hauteskundeak begi-puntuan, ikusteke dago Munduko Kopatik indarturik ala ahuldurik aterako den.**

ika-mikak, obren lizitazioen inguruko ustelkeria salaketak eta abar. Kopa abian da, ordea, eta hase-rrerdiak poztasun sentipenari eman dio bide, tarte baterako bederen. Futbola izugarri maite duen herrialdea baita Brasil.

Gaur arte beste inork ez du hainbeste diru xahutu: 12.000 milioi dolar baliatu ditu azpiegitura-lanetarako, eta futbol estadioak eraiki edo Nazioarteko Futbol Federazioaren (FIFA) baldintzetara egokitzeko beste 5.300 milioi dolar bideratu dira. Gastuen %85 entitate publikoek –Gobernuak zein estatu-administrazioek– hartu dute euren gain, Sinaenco arkitektura eta ingeniari-tza sindikatuak emandako datuen arabera. 2010ean Hego Afrikan eta 2006an Alemanian, estadioen obretan 1.500 milioi dolar inguru gastatu zituzten.

Estadio garestienak, 428 milioi euroko kostua izan duen Brasiliako Nazionalak, 72.000 lagun har ditzake. Agintariek adierazi dute azpiegitura jasan-

garria dela, baina eskualdeak ez du futbol tradizio-rik, lehen eta bigarren mailako liga nazionaletan ordezkaririk ez izateak erakusten duen moduan. Bestetik, Manaus hiriko Arena Amazonia estadio-tik hurbilen dagoen lehen mailako taldeak 2.000 kilometrora jokatzeko du. Munduko Kopako sailkapen faseko lau partida besterik ez ditu jasoko, eta etorkizunean izan dezakeen erabilerak zalantza handiak sortu ditu. Amazoniako Justizia Epaitegi-ko epaile Sabino Marquesek iradoki du estadioa presondegi bilaka daitekeela. Arduradunek bazter-tu egin dute proposamena, baina...

## BIZI BALDINTZA DUINAK ALDARRI

Urrian presidentetzarako hauteskundeak egingo dira Brasilen. Batzuek diote, Lula da Silvaren tar-tean, gaur gaurkoz inkestek irabazle ematen duten Dilma Rousseff zigortzeko estrategia dire-la Koparen aurkako mobilizazioak. Litekeena da

## JOKOZ KANPO

- **180.000 lagun kanporatu** dituzte euren etxeetatik –gehientsuenak faveletan bizi ziren–, beharrezko azpiegiturak eraikitzeko. Haietako batzuk periferiako zonaldeetan birkokatu dituzte; beste askok ez dute izan nora jo.
- **200.000 polizia eta militarrek** bermatuko dute segurtasuna.
- **790 milioi dolar** gastatuko ditu Brasilgo Gobernuak segurtasun neurrietan.
- **5.000 milioi dolar** baino gehiago irabaziko ditu FIFAk babesletza eta merkatuteknia akordioengatik. Nazioarteko Federazioak ez du zergarik ordainduko, Brasilek –eta gainerako hautagaiek– Kopa jaso-tzeagatik eskainitako abantaila fiskalak medio. Ezta Coca-Cola, Johnson & Johnson, McDonald’s eta gainerako babesle ofizialek ere.
- **8 behargin** hil dira azpiegitura eta estadioetako obretan.
- **2 kilometro.** Estadioen inguruan, bi kilometroan, FIFAk bere legea inposatuko du: segurtasun neurriak kontrolatuko ditu, babesle ofizialenak ez diren salmenta-postuak kenduko dituzte...
- **419 milioi euro** banatuko ditu FIFAk 32 selekzioen artean –253 milioi eman zituen 2010ean–: irabazleak 25 milioi inguru jasoko ditu, bigarrenak 18 eta hirugarrenak 16.
- **720.000 euroko gainsaria** jasoko du Espainiako selekzioko jokalariek Kopa irabaziz gero –2010ean Hego Afrikan 600.000 euro jaso zituzten–. FIFAk emandako diru pilatik aterako lirateke Espainiako Federazioaren gainsariak, 16,5 milioi euro guztira. Jokalari frantziarrek 300.000 euro baino apur bat gehiago jasoko dute Kopa irabaziz gero.
- **140 euro** inguru balio du Munduko Kopako baloi ofizialak, Adidas multinazional alemaniarren *Brazucak* –eta 30 euro erreplika txukun batek–. Baloiak egin dituzten ia 2.000 langile pakistandarrek 74 euro kobratzen dute hilean, AEBetako Bloomberg enpresak jakinarazi duenez. Bi hileko soldata baloi baten prezioan. 2010ean 13 milioi *Jabulani* baloi saldu zituen Adidasek.

SILVIA IZQUIERDO / AP





neurri (txiki) batean hala izatea, baina herritarrek badute arrazoirik mesfidati eta haserre agertzeko.

Iaz hasi zituzten manifestazioak, garraio publikoaren prezio igoerak bultzatuta. Gehiago ordaindu behar izateaz gain, protesta egin zuten igoeraren ehunekoa Koparen azpiegitura gastuak estaltzera bideratuko zelako, oinarritzko premiak asetzeko baliatu beharrean. *Nao vai ter Copa* (Ez da Koparik izanen) mugimenduaren aldarrikapen nagusietako bat da hori: Diru gutxiago futbolarentzat, eta gehiago etxebizitza, enplegu, osasun eta hezkuntzarentzat.

Protestan ikusi ditugu irakasleak, bankuko langileak, autobus gidariak, kale garbitzaileak, mediku eta erizainak, indigenak, faveletako herritarrak... Guztiek dute zer aldarrikatu, zer salatu. Ikusteke dago Kopa amaitzean haserre horrek guztiak zein norabide hartuko duen. Aditu

## Indigenei lapurtutako lurak gozagai

Coca-Colak irribarrez ageri diren indigenen irudiak baliatu ditu Munduko Koparen harira egindako iragarkietan. Survival erakundeak gogor kritikatu du publizitate-kampaina, multinazionalaren hornitzaileetako batek, Bunge konpainiak, guaraniei lapurtutako lurrek emandako azukrea erosten duelako.

Halaber, Kopa hartuko duten estadio batzuk tribu horren lurretan eraiki direla ohartarazi du aipatu erakundeak. Brasilgo indigenak beren sorterrietara itzultzeko borrokan ari direnean, Valmir izeneko lider guarani gaztea bahitu eta torturatu egin zutela salatu zuen Survivalek ekainaren 2an. Gaztearen aitaginarreba, komunitateko buruzagi Nísio Gomes, 2011n hil zuten aurpegia estalia zuten 18 gizonek. Valmir erasoaren lekuko izan zen, eta ordur geroztik borrokan ari da agintariek hilketa argitu eta ganadu-azienda batek lapurtu zizkien lurak berreskuratzeko.

batzuek uste dute *Nao vai ter Copa* mugimendua anitza eta deszentralizatua dela, lider argirik gabe-koa, eta horrek bere aurka egin dezakeela; bestee- ordea, manifestazioek ez dutela etenik izango diote, are gutxiago 2016an Rio de Janeiron egingo diren Joko Olinpikoen kostu sozio-ekonomikoak ere hautsak harrotu dituela kontuan hartuta. Epe laburragoan, Brasil garapen bidean dagoela eta nazioartea berari begira duela jakitun, Munduko Kopa ustel ateratzen bazaio herrialdearen presti- gioak muturrekoa jasoko duela dio analista ugari.


## PROSTITUZIOA ETA BOTERE-HARREMANAK

Adin txikikoen sexu-esplotazioak gora egin du Brasilgo zenbait hiritan, estadioen inguruko auzoetan bereziki, gizarte eragileek salatu dute- nez. “Prostituzioa eta Munduko Kopa ekono- mia, arraza eta genero botere-harremanetan oinarritutako gizarte ereduaren parte dira”, dio Emakumeen Mundu Martxako militante Celia Alldridgek: “Gizon zuriak eta botere-eliteak dira Koparen jaun eta jabe. Kirolaren merkantila- zioak bat egiten du prostituziora behartu eta marketin tresna bilakatu den emakumearen gor- putzaren salerosketarekin”.

**Raúl Zibechi**

Idazlea

## **“Herrien aurkako espekulazio tresna basatia da Munduko Kopa”**



**R**aúl Zibechi idazle uruguaiarra Munduko Koparen testuinguru sozio-politikoari buruz mintzo da Desinformemonos.org webguneak maiatzaren 6an plazaratutako elkarrizketan. *Brasil potencia* liburuaren egilea militarizazioaz, errepresioaz, gentrifikazioaz, prostituzioaz eta, bereziki, herritarrek bultzatutako mugimenduez aritu da Gloria Muñoz Ramírez kazetariarekin. Agerkariko kideek baimena eman digute elkarrizketa laburtu eta euskaraz argitaratzeko.

**Zibechi jauna, zure ustez zein egoera bizi du Munduko Kopa jaso duen Brasilek?**

Brasil pobreen herrialdea zen lehen. Gaur egun pobre gutxiago dago, baina eredu neoliberalak indarrean jarraitzen du eta herritar ugari ez dauka duintasunez bizirauteko beste modurik, lan prekarioak egitea baino.

Iazko ekainean brasildarrek “nahikoa da” esan zuten, Konfederazio Kopa bete-betean. Prezioen igoera basatia salatzeke mobilizatu ziren, garraio publikoaren garestitzeagatik bereziki. Errepresioaren kontra egin zuten gero, pobreak kontrolatzea helburu duen polizia militarizatuaren kontra; polizia basatia baita.

Osasun eta hezkuntza zerbitzuen prekarietatearen, politika ekonomikoaren eta Munduko Koparen aurkako manifestazioak ere egin ziren,

ia 200.000 lagun bota dituztelako haien etxeetatik aireportuak edo errepideak egiteko.

Momentu jakin batean gizarte maila baxuenekoak atera ziren kalera, faveletako herritarrak, pobreenak, beltzak... Errepresio gogorra jasan dute. Segmentu horiek mobilizatu izana nabarmendu beharreko fenomeno berria da. Gaur arte ez dira mugitu, bai baitzekiten klase ertaineko manifestarien aurka gomazko balak erabiltzen dituztela poliziek, aitzitik berunezkoak beraien aurka. Beldurra galtzen ari dira eta izan dezake ondorioz. Rio de Janeiron adibidez, hiriak dituen 12 milioi biztanleetatik ia 3 milioi faveletan bizi dira. Brasilgo egoera politikoa errotik alda daiteke.

**Zer ari da gertatzen agintean den “ezkerrarekin”, Dilma Rousseff-en gobernuarekin?**

Munduko Kopa amaitu eta hiru hilabetera presidentetzarako hauteskundeak egingo dira Brasi-



**“Jende gutxik espero zuena pasa da: inkestek diotenez herritarren %50 Koparen aurka dago. Uler daiteke aintzat hartzen badugu gizarte mugimenduek egindako kontzientiazio kanpaina”.**

len. Langileen Alderdia (PT) egoera konplikatu dago, Gobernuak eman dituen 12 urteek ahaldu egin dute, politika sozio-ekonomikoei zailtasunak dituzte... Hori guztia ingurumarian kokatu behar da: BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hego Afrika) deitutakoak arrastoan sartu nahi dituzte AEBek eta Iparraldeko bloke osoak. Antza, finantza oligarkiek ez dute Langileen Alderdiak irabazterik nahi. Gobernua eta PT aldebiko jazarpena pairatzen ari dira: eskuina batetik, herri xehea bestetik.

Bestalde, datozen egunetarako jaialdi ugari antolatu du Gobernuak, baina leku itxietan egingo dira, jendeari kalera irteteko asmoa burutik kentzeko. Halaber, Munduko Kopako gastuen aurkako mobilizazioak deitu dituzten komiteak jazarpen ideologiko eta politikoa sufritzen ari dira. Protestei eutsiko dietela esan

dute, baina ikusteke dago ahal izango duten ala ez.

Zentzu horretan, Lurrik Gabekoen Mugimenduak (MST) eskatu du egunotan manifestaziorik ez deitzeko. Hainbat gauza hartu behar da kontuan, azken 30 urteetan lan eskerga egin duen kolektibo handi horri dagokionez: MSTk adierazi berri du arazo nagusia jada ez dela nekazaritza-erreforma, latifundismo zaharraren lurren banaketa tradizionala, baizik eta agronegozia borrokatzea. Mugimendua eta Gobernua aurrez aurre jartzen ditu horrek, nahiz eta lotura handiak dituzten elkarrekin. MST ataka zailean dago: ezin du jarraitu Gobernua gaur arte bezala babesten, baina kritikatzeko ere kosta egiten zaio.

Errepresioaz gain, badira mobilizazioak ahultzen dituzten faktore gehiago. Esaterako, futbolak

**ordezkutzen duena; Brasilgo gizarte-maila gutxietan dago errotua.**

Hala da, baina inork gutxik espero zuena pasa da: Inkestek diotenez herritarren %50 Koparen aurka dago. Uler daiteke aintzat hartzen badugu gizarte mugimenduek egindako kontzientziazio kanpaina. Esaterako, liburu bat aurkeztu berri da, non azaltzen den 2010eko Hego Afrikako txapelketak desberdintasunak handitu zituela.

Informazio kanpaina horretan futbolari batzuek ere hartu dute parte. Badute meritua, FIFAk ez duelako kritikarik onartzen. Ronaldinhok adibidez adierazpen esanguratsuak egin ditu. Baita European ari den Kakák ere. Ulertu dute herrien aurkako espekulazio modu gogor eta basatia dela Munduko Kopa.

**Jendea geroz eta kontzienteago al da mega-ekitaldi hauen kostuaz?**

Sentsibilizatuago dago, hainbat arrazoi medio. Esaterako, ikusi dute kapital espekulatiboak herritarrak bizitokietatik bota dituela.

Bestetik, agerian geratu da Munduko Kopak prostituzioa sustatzen duela, umeena bereziki. Salaketak bideratu dituztenak Koparen eta Joko Olinpikoen komiteak izan dira, 2007an Rio de Janeiron egindako Panamerikar Jokoen ingurumarian sortu zirenak. Lana erruz egiten ari dira gehien kaltetutako komunitateetan.

Beste hiri batzuetan zer gertatu den jakitun da jendea. Begira Greziari. 2004ko Joko Olinpikoak zirela-eta aireportua egin zuten, autopista, azpiegitura ugari... Hiriak zorpetuta geratzen dira.

**Zorpetuak eta ezarritako segurtasun mekanismoek kontrolatuak.**

Hala da. Estatuak 250.000 soldadu eta polizia mobilizatuko ditu lur, aire zein itsasoz. Zaintza elektronikoko gailuak jartzen ari dira aireportue-

tan, portuetan... Horiek guztiek denboran iraungo dute. Esaterako, favela bat apirilaren lehenengotik uztailearen 31ra bitartean kontrolpean izatea, Kopa amaitu ondorenean ere iraungo duen politika baten parte da.

Militar brasildarrek esan dute Haitin entseututako teknikak erabiltzen ari direla faveletan. Hura moduko adibideek erakusten digute aipatu operazio militarrek herritarren gaineko kontrola areagotzeko tresnak direla.

**Ekonomikoki zein arrasto utziko du Kopak?**

Koparen arduradunek ez dute horri buruz hitz egiten, zer gertatuko den ezkutatzen ari dira.

Batetik, badirudi Txina lehiakide geroz eta gogorragoa dela Brasilentzat, Argentinara eta Latinoamerikako beste eskualde batzuetara egiten dituzten esportazioei dagokienez. Munduko Koparekin eta Olinpiar Jokoein herrialdearen eta biztanleen urrakortasuna handitu egingo da. Bestetik, Lula da Silvaren gobernuak 2003an aplikatu zituen gizarte politikek ez dute gehiagorako ematen, jada ez dira jendea diziplinatzeko edo haren beharrak asetzeko gai. Epe motzera ondorioak ekarriko ditu horrek.

Latinoamerikako herrialde inportanteenetakoa da Brasil. Han gertatuko denak eragin handia izango du kontinentean. Garai delikatuak bizi ditu, higadura uneak, eta beharrezkoa du Latinoamerika zein mundu mailan jokatzeko duen papera doitzea. AEBen ofentsibak, momentu zehatz batean, erabakiak hartzera behartuko ditu agintariak.

Brasilek ezin du jarraitu inoren aurka errotik egin gabe. Gaur egungo orekak eraldatzen ari dira eta uste dut hori behartzen ari direnak behe mailako herritarrak direla. Denborak murrizten ari dira; AEBetako elite dominanteen intransigentzia geroz eta handiagoa dago batetik, estatu autoritarismoaren hedapena eta eskuina indartsu sartu izana bestetik. Venezuelan ikusi dugu jada.

## Ekain Rojo Labaien

EHUko NOR ikerketa taldeko kidea

# “Euskal selekzioa Munduko Kopan? Nekez, estatuak baitira futbolaren ardatz”



**«Jaurlaritzako Kirol zuzendari Jon Redondok esandakotik eratortzen da Euskal Herriak zehazten ez den status politikoa erdietsi bitartean ia ezinezkoa izango duela nazioartean ofizialtasunez lehiatzea».**

Ez da aukera handirik ikusten euskal selekzioak demagun 20 urteren buruan Munduko Kopan parte hartzeko. Eskozia, Irlanda Iparraldea, Gibraltar... badira bestelakoa pentsatzera eramanez gaitzaketen adibideak, baina futbola estatuak ardatz dituela antolatu dela aintzat hartuta... Espainiak eta Frantziak ikusiko balute euskal selekzioak ofizialtasuna lortu eta nazioartean herrialde independente baten irudia ematerik izango zuela... Selekzio batek atzerrian ofizialki jokatzeko independentziaren adierazgarri baita ia-ia. FIFAk dio Europako Futbol Federazioan (UEFA) sartu ahal izateko estatu bat

Futbola eta politika beti egon dira nahastuta. Hala frogatu du Ekain Rojo Labaien ikerlari donostiarrek *Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian* liburuan (Utriusque Vasconiae, 2014). Futbolak nazio nortasunak elikatu eta biziberritzean duen ahalmen sinbolikoa aztertu du, bere sorreratik –XIX. mendearen bigarren erditik– gaur arte. Liburuko zenbait pasarteri buruzko iruzkina egiteko eskatu diogu egileari, historia hurbilari erreparatuta.

ordezkatu behar dela; aukera ematen du hauta-gaitza aurkezteko, nahiz eta estatua ez izan, baina proposamenak aurrera egiteko gaineratik dagoen estatuaren baimena behar da. Borondate politikoaren esku dago aferra.

Hedabideek, gainera, estatu-nazioaren izaera betikotzen dute kirolean, estaturik gabeko nazioen kalterako. Eskoziaren kasuan, Erresuma Batuko hedabide-sarearen mendean izateak, selekzioaren bidez nazio harrotasuna piztea zailtzen dio, britainiar irletako salbuespenaz onura aterata estaturik izateke nazio taldea duen arren. Kontua da herritar ugari ezin dituztela partidak ikusi, ordainduzko telebista kateetan ematen dituztelako.

Espainiako Konstituzio Auzitegiak ebatzi du euskal selekzioek posible dutela nazioartean

lehiatzea, baldin eta Espainiakoak tartean ez badaude. Espainia ez dagoen kirolen bat aurkitzen baduzu, aurrera; bestela jai duzu. ESAIT ari da hortik bidea egin nahian, baina futbola futbola da, gainerako kirolek baino indar sinboliko askoz ere handiagoa du...

**«Euskal selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzen du ESAIT iritzi taldeak (...) Ofizialak bailiran bezala lan egingo dutela dio Euskal Herria Kirola erakundeak».**

Hasteko, esan FIFAk bere sortzetik –1904tik– estatu-nazioa lehenetsi duela; estatuen hegemonia ziurtatzen du, salbuespenak salbuespen. Herri mugimenduen ahalegina inportantea izan daiteke. Esaterako, estaturik gabeko selekzioen arteko txapelketak bultza ditzakete [VIVA izenekoak bezalakoak], apurka-apurka indarra hartu eta FIFAr eskatu txapelketa ofizialetako sailkapen faseetan gutxienez talde batentzako lekua egiteko.

Euskal Herrian sarri gertatu ohi den moduan, gai honen inguruan ez dago batasunik, bakoitza bere aldetik doala iruditzen zait: ESAIT, EH Kirola, Jaurларitza... Alderdi abertzaleen baitan ere ez dago selekzioaren inguruko erabateko adostasunik, izenak berak sortutako polemikak eta adiskidantzako partidak eten izanak erakusten duten moduan.

**«Ipar Euskal Herrian futbolak ez du hegoaldearen pareko gizarte oihartzunik inoiz izan, eta ez du Hegoaldean bezala, espainiar estatuaren eboluzio politikoan sartuta XX. gizaldiko bere historia osoki baldintzatu. (...) Errugbia hobetsi zuten beraien identitatea adierazteko».**

Ipar Euskal Herrian futbola ere bizi dute, baina errugbian ez bezala, ez dago lehen mailako talderik, besteak beste Parisko Saint-Germain klubaren aurka neurtuko litzatekeena. Bestalde, euskal selekzioa ez dute berdin hautematen, ez du horrenbesteko funtzio bateratzailerik. John K.

Walton historialariak azaldu zidan litekeena dela bi arrazoik eragin izana zatiketa hori. Batetik, euskal nazionalismoak ez zuen Ipar Euskal Herrian Hegoaldean adina oihartzun lortu. Bestetik, futbola Bilboren inguruan ezarri zuten etorkinak eta esaterako Miarritzen bizi izandakoak ezberdinak ziren. Ingalaterra iparraldetik etorritako langileak ziren batzuk, aisialdiko egonaldia egiten zituzten Londres inguruko klase ertainekoak besteak.

**«Olatz Gonzalez Abrisketa antropologoak dio euskal nortasunaren eraikuntzan erdigu-neko sinboloa izan dela pilota. (...) Pilota, Euskal Herriarentzat, garrantzia bereziko kirola da, bere kultur ondasuna hezurramitu dezakeena. Aitzitik, nortasunezko benetako azterketa eta mailaketa besteekin neur-tzean gertatu ohi da».**

Identitate kolektibo indibidualek, norberarena berresteko behar dute izan besteengandik bereiziko dituen zerbait. Kolektiboki “gu” idearen inguruan bildu bagara ere, desberdintzea behar dugu, eta hori futbolak egiten du. Pilota identitate zeinua da, gure nortasuna islatzen du, baina ez gaitu besteekin neurtzen. Futbolak 1920ko hamarkadatik aurrera Euskal Herrian hartu zuen sona ulertzen lagun gaitzake horrek: beste herrialdeekin indarrak konparatu ahal izatean. Pilotak ezin du hori egin.

**«Santiago Segurola kazetariak uste du hedabideetatik Donostia eta Bilboko taldeen arteko bereizketa eta etsaigoa hauspotu eta sortu zutela. Donostiako prentsari leporatzen dio probintzia gorrotoa dei dakioketena indartu izana eta euskal herritarren arteko kideetasuna erasatea ondorioz».**

Salmenta iturri ere izan daiteke. Athletic babes-ten du *El Correo*k, Reala *El Diario Vascok*. Elkar-  
rren aurkako probintzianismoa bultzatzen dute, baina, euskal nortasuna diluitzea al da haien helburua? Ez naiz ausartzen halakorik baieztatzea.



**Zail du euskal selekzioak nazioartean ofizialki jokatzea, gainerik dituen estatuen borondatearen esku baitago gaur gaurkoz auzia. Jokalariek aldarrikapenarekin bat egin dute, bederen.**

Bestetik, Espainiako selekzioak jokatzeko duenean, nabarmen ikusten da euskal egunkarien arteko alde. 2010eko finala irabazi ostean, esaterako, Vocento taldekoek askoz ere gehiago baliatu zuten 'gutasuna'. Espainiako selekzioari buruz mintzatzekoan subjektu englobatzailea balitz bezala aritzen dira, gainerako egunkariak baino gertuago sentitzen dute. *Gara* eta *Deia* aseptikoagoak dira, titular informatiboagoak plazaratzen dituzte. Euskal selekzioak jokatzeko duenean kontrakoa gertatzen da.

**«Ezkerreko ideologiako pentsalariak maiz deitoratu dute futbola, herri xehea limurtu eta beraien nahietara makurrarazteko erabilitako Erromatar Inperioko zirkuko ikuskitzaren aldaera garaikidea delako».**

Ezkerreko mugimenduetan opioaren ideia maiz aipatu da, baina badira bestelakoa iradoki-

tzen duten pentsalariak. Antonio Gramsci kazetari, filosofo eta teoriarari marxistak zioen futbola leialtasun erreinua dela; eta Albert Camus idazleak esaten zuen moralaz eta giza balioez zekiena futbolarak irakatsi ziola.

Futbolak ez duela zertan lo-eragilea izan behar erakutsi dute brasildarrek. Konfederazio Koparen ingurumarian protesta ikaragarri jendetsuak egin ziren eta asteotan ere izan dira manifestazioak. Futbola gustuko dute, kirol nazionala da, herrialdearen irudi positiboa proiektatzen du mundu zabalera, Kopa bost bider irabazi dute... baina horrek ez ditu protestak geldiarazi, hainbeste diru xahutu baitute futbolekin, berdin Joko Olinpikoetan... Futbola opioarekin lotzen duen ideia kolokan jartzen du horrek guztiak. Brasilen inbertsio piloa egin da eta tamainako ekitaldi batek ez du berez dirua



TOM JENKINS / THE GUARDIAN

**Ekain Rojo EHuko ikerlariak eta Andy Robinson kazetariak uste dute hedabideek porrot egingo balute futboleko iraultza handia gertatuko litzatekeela, klubek –handienek bereziki– telebista eskubideak dituztelako oinarri.**

sorrarazten. FIFAk sos mordoa irabaziko du, baina aurreko edizioetako datuek erakusten dute txapelketa jasotzen duen herrialdearentzat ez dela hain errentagarria”.

«Eric Dunning soziologoak zehazten du (...) ez dela harritzekoa gizonezkoen menderakuntza eta kirol modernoaren izaera patriarkala gutxitan ezbaian jarri izana. Izan ere, futbolari dagokionez, sortzez gizonezkoen nagusitasunezko familia eredia islatu zuen».

Gerretan bezala, gizonezkoei ematen zaie nazioa ordezkatzeko zeregina, haiek agertzen dira nazioaren defentsan. Zentzu horretan, neurri handi batean, nazioa edo talde nortasuna haragitzeko ezintasunean datza nesken futbolaren ahultasuna. Bestalde, gizonezkoen ordezkaritza emakumeak ere barne hartzen ditu, nazioarteko futbol partidetak ikus-entzuleria datuek erakusten dutenez.

«Futbolaren ekonomia-izaera talde-nortasunei gainjarriko bazitzaie, eta hainbatek burututako aberastasunak jokoari esleitutako emaitzaren ziurgabetasuna narriatuko balu, futbolaren ospea kolokan izango zatekeen. Izan ere, taldeen arteko lehia are eta estuagoa izan, orduan eta biziagoa da ikuslearen eta hamaika jokalariren ordezkaritza arteko uztarpena».

Paul Yonnet soziologo frantziarrak zioen kirol-ikuskizunaren erregaiak ziurgabetasuna eta identifikazioa direla. Emozio geroz eta gutxiago egon daiteke, komunikabideen eraginez besteak beste. Espainiako Ligaren kasuan, telebista eskubideengatik urtean 150 milioi euro inguru jasotzen dute Real Madrilek eta Bartzelonak, 40-50 milioi Valentziak eta Madrilgo Atléticoak, [eta 30 milioi edo gutxiago gainerakoek]. Izugarritzeko aldea da. Ikusteke dago telebistek ordaindu ahal izango duten hitzemandako diru guztia. Hedabideek porrot egingo balute futboleko iraultza handia gertatuko litzateke.

Andy Robinson

Kazetaria

## “Ingalaterrako zaleen sindikatuak dirua oinarri duen ereduaren aurka mobilizatu dira”



**E**konomian aditu Andy Robinson kazetariak hamaika lan argitaratu du 2008an lehertutako krisiaren zio eta ondorioez, liburu bat tartean: *Un reportero en la montaña mágica. Cómo la élite económica de Davos hundió el mundo* (Ariel, 2013). Liverpoolen jaioa, maiz idatzi du futbolaz, Erresuma Batuko taldeez bereziki, Kataluniako *La Vanguardia* egunkarian azken urteotan. Munduko Koparen atarian dozena erdi erreportaje publikatu zituen *Futbolaren geopolitika* goiburupean.

Txapeldunen Ligako finala amaitzean, Real Madrilko presidente Florentino Fernandezek eta Espainiako presidente ohi Jose Maria Aznarrek bostekoa eman zioten elkarri palkoan. Zer iradokitzen dizu irudi horrek?

Ez dakit zer-nolako harremana duten, baina Real Madril taldea Espainiaren ikurra da, Aznarren Gobernuak ordezkatzan zuen Espainiaren ikurra, katalanismoaren aurkako sinboloa... Espainiar identitatea ordezkatzan du Madril, nazionalismo katalana Bartzelonak. Futbol taldeak zubi modukoak dira. Beste herrialdeetan ez dut halakorik hain garbi ikusi.

Herrialde guztietako palkoetan elkartzen dira, ordea, futbol taldeetako presidentek politika edota ekonomia munduko goi-karguekin.

Bai, hala da, futbola beste edozein tresna baino eraginkorragoa baita politikarientzat, haien buruak hautesleen interes bertsuak dituzten herri-tar gisa aurkezteko. Ingalaterran, duela 50 urte, segmentu konkretu batzuen kirola zen futbola, proletalgo eta klase ertainarena. Politikari kontserbadoreek baztertu egiten zuten. Gaur egun, baina, ez dago klase jakin bati loturik. Talde bateko zale gisa aurkezteak ez dizu kalterik egingo, selekzio nazionalaren kasuan bereziki; lehen baino errenta-garritasun handiagoa atera diezaiokezu.

Liverpoolen, Anfield estadio inguruko auzotarrak haien etxebizitzak saltzen hasi ziren duela hamar bat urte, taldeko jabeek bultzatuta, futbol zelai berria eraikitzeko asmoa zeukatela-eta. Proiektua geldirik dago, ordea, eta auzoan etxe ugari dago orain hutsik.



**"Liverpool futbol kluba, Shank zaleek eraikia, yankiek suntsitua", dio Anfield estadioan zabaldutako pankartak. AEBetako kapital espekulatiboaren esku-hartzeaz kexu dira hintxak.**

2005ean AEBetako Texas Rangers beisbol taldearen jabe Tom Hicks espekulatzailerrepublikanoak erosi zuen Liverpool kluba, eta 2010az geroztik Bostongo Red Sox beisbol taldearen jabe John Henry demokrata buru duen Fenway Sports taldea da nagusia. Ikusteke dago gaur egungo jabeek Hicks eta haren bazkide George Gillet-en estrategiari eutsi ala bide berria hartuko duten. Badirudi ez dutela Anfield botako, handitu baizik, nahiz eta *Spirit of Shankly* zaleen kolektiboko bozeramaile Paul Goldberg-ek dioen moduan, inozoa litzatekeen prezio erakargarria balu kluba salduko ez luketela pentsatzea.

AEBetako inbertsio kudeatzaileak dira, era berean, Manchester United, Sunderland, Arsenal, Aston Villa, Cardiff eta Fulham taldeen jabeak. Erositako produktuei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzea dute xede, eta horrek ekarri du, besteak beste, sarreraren prezioak garestitu eta zale leialenek partidak ikustera joateko aukera geroz eta txikiagoa izatea.

Futbola eta kriketa ziren lehen langile klasearen kirolak, errugbia elitearena. Gaur egun guz-

tiek jokatu nahi dute futbolearen, telebistak inbertsio handiak egin ditu, sarrerak garestitu dira, betiko hintxek nekez bidaia dezakete haien taldeak ikustera... Egoerak bultzatuta zaleen sindikatuak mugitzen hasi dira, *Spirit of Shankly* tartean. Haiek behartu zuten Tom Hicks kluba saltzera, eta jabe berriei ere presio egin diete futbolaren globalizazioaren eredu den merkatu-estrategia muturrera ez eramateko. Brasilen antzekoa gertatu da: estadioak modernizatu ahala sarrerak garestitu egin dira eta zale pobreenek zailtasun geroz eta handiagoak dituzte partidak zuzenean ikusteko. Iazko pro-

testen olatua baliatuz elkar antolatu eta klubaren asmoak geldiaraztea lortu dute, hein batean bederen. Estadio batzuetan, adibidez, partidak zutik ikusteko guneak mantendu dituzte.

### **Nola eragin dio horrek guztiak taldeen eta zaleen arteko identitate-harremanari?**

Espanian osagai identitarioa oso politizatua dago, estatu barruko tentsioak medio, talde askoren kasuan behintzat. Ingalaterran desberdina da. Zale leialenetako askok utzi egin behar izan diote partidak ikustera joateari, ez dakite jokalariai datorren urtean taldean izango diren ala ez... Zaila da jokalariai taldearekin identifikatzea. Zer geratzen zaigun? Gure identitate zeinu nagusia gainerako zaleak dira, komunitatea, horrek du balioa.

Urte hasieran Liverpoolleko arduradun batek adierazi zuen Dunkin Donuts konpainia futbol taldearen babesle ofiziala izango zela, Liverpool eta Donuts merkatu berdinean mugitzen diren marka globalak direlako. Hain da zinikoa. Anfield auzoan umeen %43 pobrezian bizi da, elikadura

eskasak eragindako osasun arazoak izateko arrisku handiagoa dute...

**Espainian maiz hitz egiten da telebista eskubideen desorekaz. Ingalaterran pastela banatuago al dago?**

Bai, nahiz eta ez den guztiz parekidea. Futbola ez dago hain monopolizatua: Madril, Bartzelona eta azkenaldian Atlético. Ingalaterran zailagoa da aurreikustea zein taldek irabaziko duen; diru-sarrerak banatuago daude. Klub handiek fitxaketa handiak egiteari ematen zaio garrantzia Espainian.

**Eredu hori jasagarria al da?**

Espainiako Liga ez dela jasagarria dio aditu ugari, batetik, oinarri duelako Florentino eredu: fitxaketa galaktikoak egin, ondoren telebista edo marketin bidez amortizatzeko. Bestetik, edo ondorioz, boterea —arrakasta— bizpahiru talderen esku egoteak emozioa akabatu eta jendearen interesa itzali dezakeela diote. Ez dakit zer esan.

Bestetik, goi mailako futbolak sortu dituen desberdintasunak gutxitze aldera, UEFAren joko garbiaren aldeko urratsek eman dezakete fruiturik, gehienezko soldata *biguinak* ezarri daitezkeelako. Alegia, taldeek ezingo lituzkete zorrak pilatu hiper-soldatak ordaintzeko. Lagunduko luke ere Europako Batzordeak zigortuko balitu mega-fitxaketak babesten dituzten diru-laguntzak.

Ingalaterran arazoak sor daitezke futbolaren balio preziatuena, zaleak, lotura identitarioa, kalte-tua den heinean. Inbertsio funtsek eurek termino bat erabiltzen dute, *Fan Equity* balioa, zaleen berotasunari, taldeari lotutako komunitate sentipenari, erreferentzia egiten diona. Aktiboki ukiezina da, ez dago formula ekonomiko batekin azaltzerik; klubak emaitza kaskarrak lortuta ere, balio horrek eutsi egingo dio. Hor datza futbolak

### HEDABIDE BATZUK MUTU, BESTEAK BERRITSUEGI

“Sky bezalako hedabideak *Fan Equity* balioaren espoliazioa bilatzen ari diren talde handien parte dira, eta apenas sustatzen dute eztabaidarik. Badira salbuespenak, futbolaren testuinguru sozio-ekonomikoaz idazten duen *The Guardian* egunkariko David Conn, esaterako.

Espainiako kirol prentsa negargarria da. Txutxu-mutxuak haizatzen dituzte etengabe, izan balizko fitxaketa zein beste edozein konturi buruzkoak. Sentsazionalismo hori gertuago dago prentsa horitik. Ez da sana. Badirudi 20-70 urteko gizonezkoei hizpidea ematea besterik ez dutela nahi”.

duen magiaren parte batek. Urre meategia bezalakoa da eta inbertsio funtsek badakite hori. Paradoxikoa da, baina: balio handia duela jakitun diren arren, hari etekina ateratzea besterik ez dute nahi, eta suntsitu egingo dute azkenean. Hori da tristeena.

AEBetan ez dago tamainako loturarik zale eta taldeen artean, klubak hiritik hirira mugitzen dituzten frankiziek erakusten duten moduan. Bitxia da hango inbertsio talde handiekin gertatzen dena. Kirola erregulatuago dago: jokalariek gehienezko soldatak daukate, telebista eskubideak banatuago daude, jokalaria berriak aukeratzeko talde ahulenak laguntzen dituen *draft* sistema baliatzen dute... Horrek guztiak dirua irabazteko aukera mugatzen duenez, gure ereduak izugarri erakartzen ditu.

Eredu erakargarria da, ezbairik gabe, futbola diru-iturri oparo bihurtu duen kapital espekulatiboarentzat bederen. Emaria agortuko ote den ikusteke dago orain. Beste gozoki bati helduko liokete orduan batzuek; aldiz, itxitako bidea irekitzeko aukera izango lukete futbol talde askok.

# argia

ikus-entzunezkoen  
**EKOIZPENAK**



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpigitulazioak...

**ARGIA**ko webgunearen eta sare sozialen bidez  
zabalduko ditugu lanak

GUERE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,  
**profesionaltasunez eta prezio onean**

**10 urteko** esperientzia bideogintzan  
eta **1.200 bideo** baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · [ekoizpenak@argia.com](mailto:ekoizpenak@argia.com)